

noaia

Jokin Errasti kalean,
Patxi Segurola kartzelara

Emakume baserritarren
lana bistaratzeko
ekimena martxan

Zazpi taberna,
Tipi-Taparen
denboraldi berrian



DYA

Usurbilgo Ordezkaritza

943
46 46 22



**“Herriak DYArri ematen diona
baino askoz ere gehiago
jasoko du herriak DYAtik”**



serigrafia

serigiosu@serigrafiaiosu.com

- kamiseta inprimategia
- pegatinak
- iragarki nahiz industri serigrafia
- laneko arropak
- enpresa opariak
- boligrafoak
- txiskeroak
- laser markaketak...

www.serigrafiaiosu.com

Ugaldea polig. 36 tel: 943 371954 USURBIL



Marije

Arropa denda

Etxebeste,3 - 943 36 11 06 - USURBIL



Usurbil Kirol Elkartea 50 urte
1963-2013

**Dagoeneko salgai
dago Usurbilgo
eskubaloit taldearen
liburua!**

50 urteko ibilbidea
biltzen duen liburua
Laurok, Lizardi eta
Noaua! Kultur Elkartean
eskura dezakezu

15€



noaua



SAIZER



ThyssenKrupp

Albisteak iruditan

Paleta ikastaroa emakumeentzat

Kirola egitea sana izateaz gain, dibertigarria ere izan daiteke. Are gehiago, atsegina beharko luke izan. Argazkian erreparatuz gero, paletan jolasten ikasteaz gain, une atseginak ere igarotzen dituzte. Kontua da ikastaro berri bat hasiko dela laster Usurbilgo frontoian, eta dagoeneko zabaldu dela izena emateko epea.

- 18 urtetik gorako emakumeei zuzendua.
- Non: Usurbilgo frontoian.
- Noiz: urritik ekainera arte.
- Astelehenetan 19:30-21:00.
- Asteazkenetan 9:30-11:00 edo 19:30-21:00.
- Izen-ematea: 50 euro, Oiaro kiroldegian.
- Informazioa: 943372498, kirola@usurbil.net
- Antolatzailea: Pagazpe PKE.



Urrian hasi eta ekaina arte luzatuko da ikastaroa. Izena emateko kiroldegira joan behar da.

Laburrean

1973ko kintoak hasi dira ospakizunetan pentsatzen

"1973an jaiotakoa zara? Badator gure ospakizun handia. Adi, hurrengo NOAUA!ko zenbakietara, sorpresak egon daitezke eta". Ohar hauxe helarazi diote NOAUA!ri. Adi egon beharko dute beraz, duela 40 urte jaio ziren herritarrek.

80 urtekoei omenaldia, igande honetan Atxegan

Gure Pakea Elkartek antolatuta igandean, urriaren 6an. Hil direnen omeneko meza ospatuko da eguerdiko 12:00etan. Eta 14:00etan bazkaria Atxega jatetxean. Otordurako txartelak irailaren 27a baino lehen eskuratu behar ziren.

Bertso musikatuak Artzabalgo atarian

Ostegun honetan, urriak 3, arratsaldeko 19:00etan Jokin Labaien, Arkaitz Oiarzabal "Xamoa", Jon Martin eta Iñaki Apalategi bertsolariak arituko dira, musikariokin batera; Ixak Arruti eta Gari. Gai jartzaile lanetan, Haritz Kasabal arituko da.

noaUA

Kultur Elkartea
Bordaberri, 3 - Eguzkitzalde. 20.170 Usurbil
943 360 321 /// elkartea@noaUA.com /// www.noaUA.com
Jendaurreko ordutegia: 10:00-14:00 / 16:00-19:00 astegunetan



Usurbilgo Udala



Euskal presoak



Euskal Herrira!

Elkarteko lehendakaria:
Ana Aizpurua.
Aldizkari koordinatzailea:
Imanol Ubeda.
Idazkaria: Aizpea Aizpurua.
Publizitatea: Bea Alda,
publizitatea@noaUA.com.
Diseinu berria: Erroitz S. L.

Erredakzio kontseilua,
erredakzioa@noaUA.com:
Imanol Ubeda, Aritz Lasarte,
Aizpea Aizpurua.
Banaketa: Olatz Rezola, Arantxa Zulaika.
Laguntzaileak: Lontxo Zubiria,
Maria Angeles Arruti, Ainara

Arnaiz, Unai Aizpurua, Maria Jesus Urbiet, Maddi Galbete, Ana Urdangarin, Maddi Zaldúa, Iñaki Larrañaga, Pako Agudo, Jon Etxabe, Alazne Begiristain, Denis Elortza, Pello Aranburu, Xabier Aranburu, Inma Balda, Luis Aranalde, Nerea Zinkunegi,

Maialen Unanue, Ugaitz Agirre, Joxe Piñas, Unai Agirre, Idoia Torregarai eta Udarregi ikastola.
Tirada: 2.800 ale.
Lege-Gordailua: SS-668-96
ISSN: 1136-6818.
Inprimategia: Antza. Zirkuitu Ibilbidea, 2. 20160 Lasarte-Oria.



EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA
Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza



Imanol Ubeda

A zer nolako lanak hartzen dituzten

Martxoaren hasieran izan zen. Liburu itxurako proposamen bat etorri zitzaigun NOAUA!ra. Usurbil KE eskubaloit taldeak 50 urte beteko zituela aurten eta liburu bat egitekotan zaudela. Irailean plazaratu nahi zutela baina laguntza premian zirela.

Laguntza eske etorri zen, beraz. Modu apalean. Tamalez, gurean ere urte oparoak pasa ziren (oparoa oparoa, en fin, inoiz oparorik izan bada gurean). Pauso bakoitza ondo neurtu beharra dugu, zuloan behera ez erortzeko. Dirurik ez da etxe honetan, bestelako ahaleginak egiteko ez gaude oso fuerte, beraz, lanean gaudenon prestutasuna baino ezin dugu eskaini. Eta batzuetan, hori ere urri izaten da, garaiaren arabera. Maiatzean hasi eta abuztura bitartean izaten da guretzat makurrena.

Sagardo Eguna, festak nonahi, agenda bete ekitaldi, Santixabelak... Eta juxtu orduantxe egin beharra zegoen eskubaloia buruzko liburua. Kasualitatea.

Dirurik ez. Hori ezin genuen eskaini. Gure ondarearen erabilera bai, argazkiteria gurea delako herrikoia den neurrian. Eta, aukeran, balio handia duen beste zera hori eskaini genion: lan jarduna.

Udaberriarekin batera beraz, hasi zen tarteka marteka gure artean azaltzen. Astelehen eta asteartetan azaltzeko "ohitura" zuen, aldizkarian gaudenok estu antzean gabiltzan egunetan. Ez zen bakarria. Badi-ra zorion-oharredota deialdiak azken orduan ekartzeko artista handiak eginak daudenak. Zerrenda horretako "lagunekin" hasi ginen bera ere sailkatzen.

Ekainean edo, ia egunero agertzen hasi zen. Eta uztailean lankide bat gehiago zirudien. Bea Alda publizista eta diseinatzailearen albokoa. Uztailearen amaieran oporretara joan ginen eta opor egunetan hemen jarraitu zuten biek, lau eskutara lanean, liburua maketatzen. Abuztuaren amaieran oporrak bukatu eta lanera bueltan, hemen aurkitu genituen biak. Pantaila aurrean. Irailearen lehena ere iritsi zen, eta nire artean, "dixosozko liburu hau Gabonetarako ateratzen badute, ondo".

Baina oker nenbilen, beste behin ere. Usurbil KE-ren urteurren ospakizunak iritsi ziren eta irailaren 19an Sutegin zen, liburua jendaurrean aurkeztu. Jendetza batu zen eta txalo zaparrada jaso zuen. Ez zen gutxiagorako.

Jabetu ez bazarete, JJ Furunda-

renaz ari naiz. Eta bera bezalako (h)eroetaz. Beste batzuk ere gertutik ikusi ditut, gogotik lanean. Garai bateko kontuekin eta, gaurko lanaren bitartez, etorkizunerako balio-garri izango zaizkigun aztarnak betikotzen. Garai digitalean bizi garen arren, hemen eta orain, liburua baino gordailu egokiagorik ez baitut ezagutzen. *Herriak badaki, Usurbilgo memoria errepresiboa 1973-2002* (Arantxa Manterola, Agurtzane Solaberrieta eta konpainia) *Usurbilgo baserriak eta baserritarak* (Josu Tellabide, Jakoba Errekondo eta Iñaki Salsamendi), *Usurbilgo ondarea ezagutzen* (Josu Tellabide eta Asier Agirresarobe), *Gipuzkoan zehar, paseo moduan egiteko 161 ibilbide lauak edo nahiko lauak* (Patxi Jagoba Azpiroz),... A zer nolako lanak hartzen dituzten usurbildar hauek.

Imanol Ubeda | Aritz Gorriti | Maialen Unanue | Luis Aranalde | Luken Arkarazo | Joxe Piñas | Idoia Torregarai | Ugaitz Agirre | Nerea Zinkunegi

Ika-Mika

BAT -, BAT +

Bat gutxiago. Hala espero genuen. Tamalez, ikusi dugun bezalaxe, Estatu espainola eta frantsesa ez daude kenketarako. Joan den ostegunean Jokin Errastiren herriratzeak eragindako poza sentimendu gazi-gozoan bilakatu zitzaigun, Patxi Segurola Frantziatik estraditatu eta Madrilgo espetxe batean preso sartu zutela jakitean.

Ez da ongi-etorriak eta protesta elkarretaratzeak gure herrian ia bat egiten duten lehen aldia, behin baino gehiagotan gertatu izan baita pre-

so usurbildar bat etxeratzeak beste bat atxilotua edo espetxeratua izan dela. Azken adibideak: 2009ko martxoaren 25ean Agurtzane Solaberrieta harrera egin eta hiru hilabetera Olatz Lasagabaster eta Patxi Uranga hartu zituzten atxilo; 2010eko apirilaren 14ean, berriz, Marisa Alejandro (epaitua izateko zain fidantza-pean dagoena) behin behinean aske utziko zutela jakin genuen egun berean, Joxe Domingo Aizpurua berriro atxilo eraman zuen Guardia Zibila.

Alabaina, hori pentsatzeko bide ematen badute ere, kointzidentzia hauek ezin dira patu gaizto bati edo madarikazio bati leporatu. Euskal Herriko aspaldiko errealitatea ezagututa, zoritxarreko kasualitateak baino ez dira, ehunka familia eta lagun latz ukitzen dituztenak. Baina denok dakigu errealitatea aldakorra dela. Pariseko eta Madrilgo gobernuak gure herriko eta, oro har, Euskal Herriko presoen kopuruari kenketak egiteko bidean jartzeko ahalmena dugulakoan gaude. Guztion indarrak

batu eta herri-presioa areagotzen dugun heinean, zentzuzko eragiketa hori egitera behartzeko gauza gara. Horrela, 613 ken 2, ken 25, ken 67, ken... Kontagailu malapartatu hori ZEROan jarri eta bere horretan behin betiko blokeatua uztea lortu arte, denok bultza eta bultza aritzea beste biderik ez dugu.

Bitartean, ongi etorri etxera Jokin! Eta muxu berezia Patxi eta bere familiari.

Usurbilen Nahi Ditugu elkartea.

Ika Mika atalerako idatziak gehienez 2.000 karaktere izango ditu. NOAUA!k ez du bere gain hartzen Ika Mika atalean adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik. Ezizena ere onar daiteke, baina idatziaren egile den gizabanakoaren edo elkartearen IFK edo baliokidea egiaztatu eta gero. Zuzenean beste pertsona bati zuzenduta dagoenean, izen-abizenekin argitaratuko da ika-mikarako idatzia.

Hurrengo alea: urriak 11. Idatzia ekartzeko azken eguna: urriak 7.

Ikuskaritza protokoloa adosteko bidean

LANTEGIA IKUSKATU AHAL IZATEKO PROZEDURA ADOSTEKO BORONDATEA AZALDU DU UCINEK

Bada nobedaderik Usurbilgo aire kalitatearen eta zehazkiago esanda, Ucin lantegiari loturiko ingurumen gatazkan. Atxegalde ondoan kokatua dagoen lantegiko arduradunek, Udalarekin bitartekaritza lana egitea eskatu die Eusko Jaurlaritzari. Helburu argi batekin; lantegia ikuskatu ahal izateko protokolo bat adostu nahi du Ucin. Udak du ikuskaritzak egiteko eskumena eta gobernu taldetik ondo hartu dute konpontzeke jarraitzen duen gatazka honetan, Ucin eman duen aurrerapausoa. "Gu prest gaude beti, gauzak ahalik eta modu onenean egiteko", diote gobernu taldetik.

Atzera begira jarrita, gogorarazten dutenez, "lehenago ere enpresarekin ikuskaritza protokolo bat adosten saiatu ginen. Proposamen bat egin genien baina enpresak, ikuskaritza egiteko eskumenik ez genuela zioten. Lehen bezala, orain ere prest gaude adostasun batera heltzeko".

Irailaren 11n, Udak Eusko Jaurlaritzarekin Gasteizen eginiko bileran jaso zuten Ucin eginiko eskaera honen berri, Arabako hiriburura bertaratu zen udal ordezkariak; Mertxe Aizpurua alkateak, Jose Maria Rivadeneyra ingurumen zinegotziak eta Ibon Goikoetxea alor bereko udal teknikariak. Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako erakunde nagusiko ingurumen zuzendari, abokatu eta teknikariek bildu zen Usurbildik joandako taldea.

Jaurlaritzaren eta Udalaren arteko irailaren 11ko bilera honetan hitz egindakoak, hitzordu berri bat finkatzea ekarri du urriaren 10erako. Hiru aldeak biltzekoak dira egun horretan: Udala, Jaurlaritza eta Ucin. Bertan, ikuskaritzak zer modutan egin adostu nahi dute. Ikuskaritzak egiteko eskumena Udak du aipatu moduan. Eusko Jaurlaritzak ikuskapenak Udalarekin batera egiteko presuntasuna adierazi du.

Jaurlaritzak ez du ke beltzik ikusten

Maiatzetik zuten eskatua irailaren 11ko bilera hau, hain zuzen Ucin Jaurlaritzan eginiko beste eskaera baten harira. Hondakinak kudeatu ahal izateko baimena jasotzea galdegin baitzuen aipatu lantegiak, "hondakinak labean funditzeko baimena" udaletik zehaztu dutenez. Eta honen aurka agertu da Udala Jaurlaritzaren aurrean. Hondakinak urtzeko baimenik ez ematea galdegin zioten Jaurlaritzari, irailaren 11ko bileran.

Orain arte zuten baimen bateratuan, "aluminiozko txatarra baino ezin zuten urtu". Udak emandako lizentzian gainera, "txatarraren garbitasuna kontrolatzeko hainbat neurri jarri genituen". Gobernu taldearen ustez, txatarraren kali-



Azken urteotan mobilizazio ugari egin da industrialdetik datorren usaina eta kea salatzeko.

INGURUMEN ZINEGOTZIA

"Hondakinak tratatzeko baimena ematen bazaie, horrekin batera kontrol zorrotzagoak ezarri beharko zaizkie Jaurlaritzatik"

tatea eskasa eta zikina baita. Karga sistema bezala, eskasa eta irekia Udalaren esanetan. Hondakinak erretzeak gainera, ke gehiago eragiten du. Hau guztia azaldu zion udal ordezkariak Gasteizen, aurrean zituen Jaurlaritzako kideei. Eta honen harira bi eskaera nagusi egin zitzaizkion udaletik; batetik Ucin indarrean duen baimen bateratua urratzen ari dela eta, aipatu baimena betearazteko beharrezko neurriak hartzea. Udaletik diotenez, "euren baimen bateratuak kea ateratzea debekatzen du". Eta bigarren eskaera, txatarra ikuskatu ahal izatea zen.

Albiste gazi-gozoak jaso zituzten Jaurlaritzatik. Aipatu moduan, ikuskaritzaren gaia bideratzen hasia dela dirudien artean, baimen bateratua betearazteko eskaera bere horretan geratu liteke. Ez atzera ez aurrera. Antza, Udaletik berri eman dutenez, Eusko Jaurlaritzak Ucin hondakinak tratatu ahal izatea baimentzeko asmoa du. Gasteizko teknikariaren ustez, "hondakinak erabiltzeko ez du ke gehiago ateratzea eragin behar. Aldiz, txatarra garbia edo hondakin erabiliak baliatzea desberdina dela, nahiko argia da guretzat. Baina beraiek ez dute horrela ikusten eta baimenduko dute", gobernu taldetik iragarri dutenez. Jaurlaritzatik diotenez, Usurbilen aire kalitateari loturiko arazorik dagoen erakusten duen datu objektiborik ez dago. Are gehiago, Gasteizen esanetan hamar bat bisita egin dituzte Ucin eta diotenez, "ez dute inoiz ikusi

guk ikusi dugun ke beltz hori". Eta horrek ondorio argia du; "urraketarik dagoenik ikusten ez dutenez, ezin diote ezer exijitu enpresari".

Jaurlaritzak pauso hau ematen badu halere, izango du ondorio positiborik Udalaren ustez. "Hondakinak tratatzeko baimena ematen bazaie, horrekin batera kontrol zorrotzagoak ezarri beharko zaizkie Jaurlaritzatik", ohartarazi dute udaletik. Hondakinaren inguruko informazio guztiak erregistratua egon beharko du. Hau guztia Ucin nola gauzatu asmo duen, informazio osoa eskatua dio Udalak Jaurlaritzari.

Herritarren kexek, etenik ez

Amaitu berri den udan ere, Udaleko telefonoak jotzen jarraitu du. Ucin loturiko herritarren kexa gehiago jaso dituzte uztailen. Abuztuaren lantegia itxita egon zen. Dei haietako baten arabera, uztailaren 26an antza, leherketa bat entzun omen zen. Herritar batek hala esan ostean Udak inguruko lantegiekin harremanetan jarrita berretsi ahal izan zuen. Ucin enpresatik bestelakorik diote halere. Haiek ez dute aipatu eztanda honen berririk.

Herritarrek usain txarrik edo kerik sumatzen badute, udaltzaingora deitu besterik ez dute; 943 361 112. Kexak jasota, orain arte bezala, Udak argazkiak atera eta Eusko Jaurlaritzara bidaltzen segitzen du. "eta enpresari ere azalpenak eskatzen dizkiogu, nahiz sistematikoki ez duten erantzuten". Gai honi loturiko hurrengo hitzordua, urriaren 10ean.

DYA, orain Muna Lurran

"BOLONDRES GUZTIAK EREDUGARRIAK ZARETE", ADIERAZI ZIEN ALKATEAK IREKIERA EKITALDIAN

Muna Lurran egongo da aurretantzean DYArek Usurbilgo egoitza. Telefono zenbaki bera mantentzen dute ordea: 943 46 46 22. Egoitza berriarekin erosotasunean irabaziko dute. Baina hori baino askoz garrantzitsuagoa da eraikin berriak DYAk bolondresei emango diena: zerbitzua hobetzeko eta formazioan sakontzeko aukera. Odol Emaileen Elkarteak ere eraikin berri honetara aldatu dira.

"Inork ez du galdetu zergatik utzi dion Udalak DYAri eraikin hau". Honela hasi zuen bere hitzaldia Mertxe Aizpurua alkateak. "Guztiok dakigu horren erantzuna. Lehen arrazoia oso sinplea da, eraikin hau DYAri eman zaio eskaera bat egon zelako". Bildu udal gobernura iritsi eta, gutxira, Jose Luis Artola Oria Eskualdeko DYAk presidentek udaletxera jo zuen, eraikin berri baten beharra azalduz. Bere helburuak betetzeko, DYAk beharrezkoa zuela eraikin egoki bat. "Ez da beti gertatzen, baina batzuetan arazok eta aukerak gurutzatu egiten dira puntu jakin batean", adierazi zuen Mertxe Aizpurua alkateak.

Agerreazpiko etxebizitzaren obrak hasi zirenean, aprobeitxamendu gisa Udalak eraikin bat jaso behar zuen. Planta bateko eraikina. "Beste behar batzuk bazeuden herrian, baina DYArek beharretara egokitzeko zela iruditzen zitzaigun. Bi anbulantziarako tokia dago eta egoitza honek dinamismoa ematen dio auzoari. Hori ere positibotzat jo genuen". Ideia hezurmamitzea ez zen zaila izan. "Ez genuen gehiegi arrazoitu behar izan. Ez gure



Aurreko ostiralean egin zen inaugurazio ekitaldia, eraikin berriaren atarian.

MERTXE AIZPURUA

"Lana egiteko baldintzak hobetuko dira, horretan irabaziko duzue. Baina irabazten duena herria da"

lan taldean, ez udaletxeko beste alderdiei aurkezteko garaian. Denek oso argi ikusi genuen hasieratik, ondo hartu behar genuen erabakia zela hau".

Ahobatez onartua izan zen proposamena udaletxean. DYArek atzean, bolondres lana dago, herritarren alde lan egiteko prest dauden lagun asko. Alkatearen ustez, "DYA herriko zerbait izatera pasa da eta horrela sentitzen dugu usurbildarrok. Badakigu DYAk hori daudela zerbait gertatuz gero".

20 urte dira DYAk herrian daudenetik. "Larrialdietan berehalako laguntza ematen ikusi izan ditugu, prebentzio zerbitzuak egiten, trasladoak egiten, zauritutakoak atenditzen...". Eta horregatik, ondo egindako

lanari errekonozimendua zor zaiola uste du Mertxe Aizpurua. "Zesio honek badu bere baitan ideia hori barneratuta. Baina ez da sari bat. Udalak lagatzen dizue eraikin hau zuek gu guztion alde lan egiteko. Hau da tratua. Lana egiteko baldintzak hobetuko dira eta horretan zuek ere irabaziko duzue, baina irabazten duena herria da".

"EREDUGARRI ZARETE"

DYAk egiten duena ohikoa ez delako, herriaren aitortza eta eskertza ere bada zesio honen muinean. "DYAk bolondresak gu guztiontzat eredugarri zarete", azaldu zuen alkateak inaugurazio ekitaldian ziren lagunaren aurrean. "Horregatik gaurko ekitaldi honek omenaldi bat ere izan nahi du. Usurbilgo DYAri eskertzeko unea da, ordezkatzeko dutena ordezkatzegatik, egiten dutena egitegatik".

Sinatu berri den hitzarmenean 20 urterako lagapena jasotzen da, luzagarri gainera. Eraikinean tokia izango du Usurbilgo Odol Emaileen el-

karteak. Eta Muna Lurrako bizilagunek noizbait beharra izanez gero, DYArekin adostuta erabilgarri izango dute eraikina.

"Herriak DYAri ematen diena baino askoz ere gehiago jasoko du herriak DYAtik", esanez amaitu zuen alkateak bere azalpena. "Urteen eta lanaren poderioz, guztiok kabitzen garen giza-sarea josi dute. Elkartasunaren sarea da hori. Hitzarmenak ez du horrelakorik esaten baina hemen esan beharra zegoela uste dut".

1991TIK HERRIAN

"1991n etorri ginen Andatza elkartekoei eta orduko udal ordezkariari esker. Geroztik zenbat lan, zenbat ordu, zenbat jende pasa den DYAtik. Horiei denei eskertu behar zaie. Lan taldekoak bezala hartzen ditugu orain ere", adierazi zuen Joxepo Artolak, DYAkoen izenean. "Gu bolondresak gara eta ahal duguna egiten dugu. Beharra dagoenean, 943 46 46 22 telefono zenbakira deitu eta ez bagaude hemen bertan, segituan gau-

de. Nagore Maiz hemen bizi da gainera, beraz erraza daukazue". Egoitza honi esker, "ordu gehiago pasako ditugu hemen", azaldu zuen Artolak, Oriako DYako presidentea. "Ez da soilik guretzako tokia. Guk dakiguna erakusten ere, badugu lana. Eta ikastaroak emateko gela ere badugu orain". Udalari eskerrak ematen amaitu zuen bere azalpena: "mila esker Udalari, gugan sinisteagatik".

FORMAZIOAN SAKONTZEKO AUKERA

Joxepo Artolaren ondoren, Nagore Maizek hitza hartu zuen. DYako ordezkaria da Usurbilen. Une honetan, 44 bolondres daude Usurbilgo basean. "Orain dela 26 urte, Oriako DYaren delegazioa hasi zeneko ilusio berdinarekin jarraitzen dugu, gure denbora libretea besteei eskaintzen", esan zuen Nagore Maizek. "Lokal honek aukera ematen digu osasun zerbitzu gehiago eman ahal izatea, barruan



*"Hasierako
ilusio berdinarekin
jarraitzen dugu;
gure denbora
libretea besteei
eskaintzen"*

Muna Lurrako egoitza berrian sinatu zen DYA eta Udalaren arteko hitzarmena.

gaudenok formazioa jasotzeko eta DYAn sartu nahi duenarentzat hemen bertan formatzeko eta guk formakuntza hori eskaini ahal izateko".

DYaren urteurrena ospatzen ari dira. Egoitza honen inaugurazioaz gain, "ate irekien

eguna ospatuko dugu urriaren 20an", aurreratu zuen Maizek.

Amaitzeko, eskerrak emateko aukera ere baliatu zuen Usurbilgo bolondres gazteak: "boluntarioen partez, eskerrak eman nahi ditugu besteei laguntzen jarraitzeko aukera

hau eskaintzeagatik eta pertsona bezala hazten ere laguntzeagatik".

Odol Emaileen Elkartekoak ere izan ziren inaugurazio ekitaldian. Aurrerantzean, bertan batuko dira eta odola ere bertan eman beharko da.

Egoitzaren lagapena ahobatez onartua izan zen Udaletxean

Ostiralean inauguratu zen DYaren egoitza berria erabili ahal izateko lagapena, aho batez onartu zen hiru egun lehenago burutu zen osoko ohiko bilkuran. Muna Lurrako egoitzaren erabilera doan DYari ematea erabaki zuen udalbatzak aho batez, "irabazi asmorik gabeko eta herri onurako elkar-tea dela frogaturik geratu delako". Honekin batera, eta leku aldaketaren ondorioz, DYak orain arte udaletxe ondoan zuen lokala itzuli behar-

ko dio Udalari. Egoera kaxkarrean egon eta DYak laguntza zerbitzua eskaintzeko muga handiak zituen udaletxe ondoko "Mediku Etxe" ize-nez ezagutzen den eraikinaz ari gara. Aipatu moduan, Muna-Lurra 26ko egoitza berria inauguratuta, DYakoen lokal ohian Andatzakoek jarraituko dute.

Inauguraziora PSE-EE, Hamaikabat, Aralar eta Bilduko udal ordezkariak bertaratu ziren.



Formaziorako gela bat egokitu dute eraikin berrian.



Urbietarra eta Santxo-Urruzola bikoteek jokatu dute Pilota Txapelketako finala

Asteburu honetan hasiko dira San Praixku jaiak Aginagan. Tartean argituko da nortzuk izango diren aurtengo eskuzko pilota zein pala txapelketetako irabazleak. Esan dugu, festak asteburu honetan hasiko dira. Baina pilota eta pala txapelketak aspaldi abiatu ziren. Gizonezkoen pala txapelketako finalerako Imanol Esnaola sailkatu zen arren, min hartuta dago eta ezingo du finalean parte hartu.



Artxiboko irudi honetan, iazko txapelketetako irabazleak.

Urriak 3 osteguna, 18:00

- Gorpildunen palako adiskidantzazko partida.
- Emakumeen Paleta finala: Argizka-Ana / Aitziber-Dolo.

- Gizonezkoen Pala Txapelketako finala: Josu Arruti-Xabier Errasti bikotea, Igor Alkorta-Josu Errekondoren aurka.

Urriak 4 ostirala, 22:00etan

- Pilota Txapelketako finala: Urbietarra-Arruti bikotea Santxo-Urruzolaren aurka.

Usurbilgo udalak 8.900 euro inbertitu ditu Eliza Zaharraren berritze lanetan

Auzolanean berritua izan da eta auzolanean asumitu dira hainbat gastu. Sakristia zeneko leihoa eta baita gainontzeko leiho probisionalak, nola margolanen gastuak, adibidez. Baina udalaren babes ekonomikoa ere inportantea izan da. Era honetan lagundu du Udalak.

Segurtasuna	1.355,88€
<i>Ikastaroa, materiala</i>	
Lanerako tresneria	619,55€
Materiala, garraioak	3.850,60€
<i>Igeltzeritzako materialak</i>	
Material elektrikoa	1.608,61€
Ate berria *	1.500 €
Guztira:	8934,64 €

*Sakristia zeneko atea.



Aginagako Eliza Zaharrak itxura berria du orain.

Lehen asteburukoak

Urriak 3, osteguna

18:00 Txupinazoa.
18:30 Ezinduen pala partida.
19:00 III. Emakumezkoen Pala Txapelketako finala eta XI. Gizonezkoen Pala Txapelketako finala.
22:00 Zuhaitz Gurrutxagaren baka-
rrizketa saioa ludotekan.

Urriak 4, ostirala

11:00 Meza Nagusia. Gero hamaitketakoa Aginaga sagardotegian.
17:30 Herri kirolak, Manuel Mari-
ren kontakizun eta txisteekin.
19:00 Sardina eta sagardo bana-
keta. Tarte horretan herri argazki
handi bat aterako da.
Bitartean, XXXI. Topa Txapelketa
herrikoia.
21:00 Eskupilota partidak eta XI.
Eskupilota Txapelketako finala.
Ondoren, kontzertuak Eliza Zaha-
rrean, Hotzikara eta Odolaren Min-
tzoa taldeen eskutik.

Urriak 5, larunbata

06:00 Oilasko biltzaileen irteera
bazterrak alaitzera.
16:00 VII. Gizonezkoen Aginagako
Trainerila Txapelketa.
Ondoren, Zumartxan txarangare-
kin kalejira erriotik frontoira.
20:00 Iparraldeko lagunek eginda-
ko lanaren erakusketa.
21:30 Herri afaria.
00:00 Dantzaldia: Ingo al deu.

Urriak 6, igandea

09:00 Tiro platoa.
18:00 Herri kirolak: Larretxea, Txa-
partegi, Olasagasti aizkolariak, eta
herriar batzuk.
Ondoren, I. Tortilla Patata txapelke-
ta eta pintxo potea frontoian.
Bitartean, buruhandiak eta trikiti-
lariak.

www.noaua.com
USURBILGO ATARIA

BORDATXO
taberna
Pintxo Bereziak
943 37 10 42
Zubiaurrenea 5

ALKORTA
AUTOZERBITZUA
Baserriko haragia
•Frutak •Barazkiak •Etxeko produktuak •Izoztuak
Beheko kalea 4, ATXEGALDE AUZOA 943 36 57 42

Ordutegi gehiago eskuratu nahi badituzu, hemen aurkituko dituzu:

- * NOAUA! * Udaletxea
- * Kiroldegia * Saizar
- * Aginagako Arrate taberna * Zubietako Almandegi taberna

Edo deskarga ezazu www.noaua.com-etik!

noaua

tren eta autobus



ordutegia 13/14

kaffa

Urriaren 4an, ostirala,
18:00-20:00 artean...

Kaffa kafetegiaren berrinaugurazioa!

Errekatziki, 2
USURBIL
Tel.: 943 24 33 71

IRAKI DITZAGU GARRAIO FUNKIONA GUZTIONTZAT EROSOENA!

EUSKARA, BIHOTZETIK

AHORA!

KILOMETROAK 2013
URRIAK 6 TOLOSA

ZAIN GAITUZUE!

Laskorain Ikastola ikastolenelkartea

Emakume baserritarren hitza jasotzen

EUREN BIZIPENAK BATU ETA LIBURU ZEIN DOKUMENTAL BATEAN PLAZARATUAK IZANGO DIRA

Jardun honetan dabilta Leire Urkidi eta Maitane Arnaiz gasteiztarrek. Usurbilgo Udaleko Parekidetasun Sailak eginiko beka deialdi batera aurkeztu ziren, eta arabarrek aurkezturiko proiektuak jaso du puntuazio altuena. Usurbilgo emakume baserritarrak aztertuko dituzte. Lanean, inguruotako hainbat emakume baserritar elkarrizketatzen hasiak dira jada. Bildutako informazioa gerora, liburu eta dokumental batean argitara eman asmo dute. Zehaztasun gehiago, egileen eta parekidetasun alorraz arduratzen den Enara Arbizu zinegotziaren eskutik.

NOAUA! Zergatik beka deialdi hau?

Enara Arbizu. Parekidetasun Zerbitzutik bideratu den beka deialdia da. Landuko duten gaia Usurbilgo emakume baserritarren ingurukoa da; euren bizipenak, historia bera jaso eta landuko dute, ikuspegi feminista batekin. Eta lan hori erabilgarria izatea nahi da. Gero, herriari erakusteko.

Historian zehar emakumeak egin duen lana ikusezina izan baita. Usurbilen baserriak garrantzia handia izan duela ikusten genuen. Garrantzitsua iruditzen zitzaigun emakumeak jendartean duen papera jasotzea eta gizarteratzea.

Beka deialdiak zer harrera izan du?

E.A. Deialdira 12 bat lan aurkeztu ziren. Horietatik zazpi izan ziren erabilgarri. Besteak ez, batzuk berandu aurkeztu zutelako, beste batzuk baldintzak ez zituztelako betetzen... Zazpi lan hauen artean, puntuaketa altuena lortu duena Maitane eta Leirerena izan da. Lanean hasi dira jada.



“Emakumeen lana beti ezkutuan geratu izan da. Hori da gure helburua, bistaratzea”

Leire Urkidi eta Maitane Arnaiz, Enara Arbizu zinegotziarekin batera.

Nola izan zenuten Gasteizen, beka deialdi honen berri?

Maitane Arnaiz. Hainbat bi-deetatik jaso genuen. Astebetean jende askok eman zigun beka deialdiaren berri. Bide desberdinetatik; lagunak zirela...

Leire Urkidi. Irratian ere entzun genuen. Nahiko zabaldu zen. 12 lan bakarrik aurkeztu izanak harritu gintuen. Guretzat nahiko zabalpen egon zen; irratitik, lagunak, mailez edota irakasle batengandik ere heldu zitzaigun albistea.

Deialdia jasota zerk bultzatu zintuzten aurkeztera?

M.A. Antropologia ikasi nuen Donostian. Iazko ikasturtean amaitu nuen. Orain lanean ari nintzen eta antropologia

nolabait esateko, aparkatuta nuen. Banuen ordea horrekin jarraitzeko gogo. Irakasle batengana jo nuen eta berak eman zidan esan bezala, deialdi honen berri. Gai haue-tan aritzeko gogoak eraman ninduen horretara. Gainera baserria eta emakumea, gai feministak asko interesatzen zaizkit. Horregatik erabaki nuen. Eta gero Leirerekin hitz egin nuen.

L.U. Niri beste bide batzuetatik heldu zitzaidan. Ingurumen zientziak ikasi nituen eta interesgarria iruditzen zitzaidan. Elkartu eta deialdira aurkeztu ginen.

Zuen ikasketei erreparatuta, bi ikuspuntu desberdin bate-ratuko dituzue lan honetan?

L.U. Hori da asmoa. Konbinazioa ondo dago. Bakoitzaren ibilbidea batzerakoan, bi alde-ak daude.

Lana eta ezagutza, ikerketa gai nagusiak

Zein izan da proiektu hau lan-tzen hasteko abiapuntua?

L. U. Ikerkuntza munduan badut esperientzia. Proiektu bat aurkez-terakoan, liburuak begiratu, meto-dologia pentsatu behar izaten da. Baina gero dena aldatu beharra izaten da. Azkenean ere, ikerkun-tza prozesuak hasierako planak aldatzen dizkizu.

M. A. Gaia zehaztua genuela, emakume baserritarrak Usurbilen, Usurbil ezagutzen hasi ginen, guretzat nahiko ezezaguna bai-tzen. Hainbat dokumentu bilatzen, marko teorikoa egin genuen, base-rri aldetik eta genero ikuspegitik. Hainbat gai izan genituen buruan, agian ekoizpenera gehiago bide-raturikoak. Azkenean, ikerketa gai nagusiak emakumeen lana eta ezagutza izatea erabaki dugu.

“Parte hartzera animatu daitezela”

Zuen lana emakume baserri-tarrei eginiko elkarrizketen bidez gauzatuko duzue, etxez etxe. Elkarrizketak nondik norakoak izango dira?

L. U. Gure planteamendua baserriko lanen inguruan galde-tzea da. Adinaren arabera, elkarrizketa ezberdinak egitea pentsatua dugu. Emakume gazte batekin; oraingo momentuan eta etorkizunean nola ikusten duen baserri mundua, emakumea bertan eta hori dena. Adineko jendearekin, aitzina nola egiten ziren gauzak, bera gaztea zenean. Lanen inguruan galdetzen hasten gara; baserriko lanak nola egiten zituzten haiek, nola antolatzen zuten. Eta etxeko lanak, etxe barruan zer nolako lanak, nola antolatu... Hortik abiatzen da elkarrizketa eta gero gehiago sartzen gara transmisioan eta nola ikasten ziren gauza ezberdinak. Eskolan baita.

M. A. Bizitzan eremu publikoan zein izan den emakumeen parte hartzea hainbat elkarte edo taldeetan. Hori ere aztertu nahi dugu.

L. U. Auzolana ere bai. Bizitza pribatua edo baserri barruan egiten zena. Egunerokotasunaren istorioa azaltzea interesgarria iruditzen zitzaigun.

Zenbat elkarrizketa egiteko asmoa duzue?

M. A. 20 bat elkarrizketa egiteko asmoa dugu. Ia lortzen dugun. 20 emakume izan daitezke. Batzuetan ere planteatzen dugu bikoteka edo taldeka egitea elkarrizketak.

L. U. Agian gehiago izan daitezke, beharren arabera.

Irizpide batzuen arabera norengana jo, aukeraketa bat egingo zenuten?

M. A. Bereziki adina izan dugu kontuan, emakume taldeak banatzeko. Eta Usurbilgo auzo



“Nahi duena agertu daiteke argazki eta bideoetan. Ez dugu inor deseroso sentiarazi nahi”

20 elkarrizketa egiteko asmoa dute. Dagoeneko hasi dira lanean.

desberdinetakoak izatea ere interesatzen zaigu.

L. U. Gaia planteatzerakoan, galdetzen ziguten herrian; ekoizten duen emakume bat edo baserrian bizi dena, ia zer den emakume baserritarra izatea. Hor badira muga batzuk eta horrekin ere jolastu nahi dugu. Bizimodu desberdinak islatzea gustatuko litzaiguke.

Egin duzue lehen elkarrizketa. Zer moduzko hasiera izan duzue?

M. A. Ona. Urduri ginen pixka bat, baina azkenean oso ondo joan da.

L. U. Eta lagungarria, guretzako ere zaila baita kontaktuak lortzea. Inguruko baserrietako emakumeen izenak eman dizkigute. Interesgarria emakumeen arteko sareak, laguntzak, zer nolako uneetan biltzen ziren. Hori ere bada aztertu nahi dugun gauza bat.

Elkarrizketak nola gauzatzuten dituzue? Bildutako informazioarekin zer egin asmo duzue?

M. A. Ikerketa lana egin eta gero, batetik liburuxka modu-

ko bat argitaratuko dugu herriarren artean zabaltzeko. Bestetik ere dokumental txiki bat egitea gustatuko litzaiguke. Horregatik ari gara bideo-kameraz, grabagailuekin bate-tik bestera irudiak eta soinuak jasotzen.

L. U. Esan beharra dago parte hartzen duten emakume guztiek ez dutela zertan dokumentalean edo kamera aurrean grabatuak izan behar. Badira baita elkarrizketa egiteko modu desberdinak. Bada aho-tseko elkarrizketa egiteko aukera. Gero argitaratuko den liburuan izena agertu edo ez, hautazkoa da baita. Bakoitzarekin adostu moduan egiten da.

Elkarrizketatzera zoazten emakume baserritarrei zer esan?

M. A. Usurbilgo emakume baserritarrak parte hartzera animatu daitezela. Nahiko librea izango da. Ez dugula inor deseroso sentiarazi nahi. Nahi dutenak agertu daitezkeela argazki eta bideoetan, eta nahi ez duena ez da agertuko. Lehen esan bezala, emakumeen lana beti ezkutuan geratu izan

da. Hori da gure helburua, bistaratzea. Eta bestetik ere, baserriko bizitza erregistratua geratzea.

L. U. Hori ere oso azkar aldatzen doan gauza denez, garrantzitsua dela testigantza uztea. Haien parte hartzea oso garrantzitsua eta balio handiko gauza bat. Orduan animatu parte hartzera.

Lanaren emaitza, liburua eta dokumentala

Datorren udaberrirako bi gasteiz-tarrak egiten ari diren lanketa amaituta izatea aurreikusten dute. Hilabeteotan jasotako informazioa dokumental eta liburu batean islatu nahi dute. Bai ikus-entzunezkoa eta idazlana, 2014an bertan argitara emango dira.

Egileak: Maitane Arnaiz eta Leire Urkidi.

Gaia: Usurbilgo emakume baserritarrak.

Epea: otsaila amaiera aldera arte. Laguntza: 10.000 euro.

Beka deitzailea: Usurbilgo Udala, Parekidetasun Saila.

Jokin Errasti etxean da

11 urte espetxean igaro ostean, etxean da Jokin Errasti. Irailaren 26an irten zen Zuerako (Zaragoza) kartzelatik. Senide eta lagunak zain zituen espetxe atarian, eta haiekin egin zuen Usurbilera itzultzeko bidea. Hemen, Herrirak elkarretaratze berezia deitua zuen iluntzerako Mikel Laboa plazan. Ordurako, jendez beteak ziren plaza inguruak. Plaza ondoko errotondara heldutakoan, txalo, ikurriña eta besarkada artean hartu zuten Errasti. Aurreskua dantzatzuz eman zioten ongi etorria aginagarrari. Aske geratu zen herriko azken presoak, Marisa Alejandrok emandako txapela,



Irailaren 26an aske utzi zuten Jokin Errasti aginagarra.

Herriraren eskutik jasotako kamiseta urdina eta lore sorta oparitu zizkieten.

Txalo artean, kalejiran Aitzaga aldera jo zuten bertaratu ziren herritarrek eta Jokinek be-

rak. Herriko elkarteetan sartu eta preso dauden herritarren argazkien artean, berea kendu zuen. Errastik eskerrak eman nahi izan zizkien harrera egitera bertaturiko guztiei.

Mobilizazioak, Herriraren aurkako operazioa salatzeke

Patxi Segurola espetxeratu zuten egun berean, presoek eskubideen alde lanean diharduen Herriraren aurkako operazio poliziala burutu zuten. 18 atxilotu, Hernani, Bilbo, Gasteiz eta Iruñako egoitzetan miaketak eta ixteko agindua, hainbat web orri, eta sare sozialetako profilekin batera, kontu korronteak blokeatuak... Atxilotetak gertatu eta ordu gutxira, aurrez Patxi Segurolaren espetxeratzea salatzeke deitua zegoen elkarretaratzea, Herriraren aurkako sarekadan atxiloturikoak ere aske uzteko eta elkartasuna helarazteko aldarrikapenean bihurtu zen halabarrez. Mikel Laboa plazan bildu ziren herritarren kontzentrazioaren ostean, Kaxko inguruak zeharkatu zituen manifestazioa egin zen astelehenean, "Konponbideari erasorik ez! Utzi Euskal Herria bakean" lemapean.

"ERANTZUN ZABAL ETA IRMOA BEHAR DU"

Mobilizazio amaieran, 18 atxilotuei elkartasuna adierazteaz gain, burutu berri zen opera-

zio poliziala salatu zen. "Euskal Herria osoaren aurkako operazio bat da hau, konponbide eta bakearen aurkakoa", adierazi zen. Euskal jendartearen gehiengoak bere egin dituen presoek eskubideen inguruan lan egiten duela Herrirak gogorarazi, eta testuinguru horretan ziotenez, "gehiengo zabalaren aldarrikapena kaletik ateratzeko saiakera bat da polizi operazio hau. Euskal presoek dagozkien eskubideen aldarria kriminalizatu eta desagerrarazi nahi du estatu espainiarra". Presoen auzia baliatzen duela estatu espainiarra gaineratu zuten, "prozesua blokeatu eta zapuzteko". Eta gertaturikoaren aurrean, "herri bezala erantzun zabal bezain irmo bat behar du" adierazi zuten.

HITZORDUAK

Bi gonbita luzatu zaizkie herritarrei: batetik, balkoi, leiho eta kaleetan euskal presoek eskubideen aldeko banderola eta kartelak jartzeko. Eta bigarrenik, Patxi Segurolaren atxilotetaren eta Herriraren aurkako operazio polizialaren

harira, egunotarako deitu diren mobilizazioetan parte hartzea. Honatx, aldizkari hau inprentara bidean, finkatuak zeuden hitzorduak:

Urriak 2, asteazkena

19:00 Herri batzarra frontoian: hurrengo egunetan egingo diren ekimenen berri emango da.

Urriak 3, osteguna

18:00 Ezohiko osoko bilkura: Patxi Segurolaren estradizioaren harira, EH Bilduk aurkezturiko mozioa aztertu eta bozkatuko dute.

Urriak 4, ostirala

Arratsalde eta iluntze partean, herritarren eta eragileen ekimenak frontoian.

Urriak 5, larunbata

Goizean, herritarren eta eragileen ekimenak frontoian.

17:30 Manifestazio nazionala Bilbon, Kasillatik abiatuta. Autobusa Usurbildik manifestazioa hasi baino bi ordu lehenago abiatuko da. Izen ematea ohiko lekuetan.

Patxi Segurola, konfinamendutik espetxera berriz

2010. urte amaierarako frantziar estatuan espetxe zigor osoa bete zuen arren, azken bi urte eta erdiontan konfinatuta egon da Autunen, sorterrira duen Aginagatik 850 kilometrotara. Denbora tarte honetan espainiar estatuak eginiko estradizio eskaera gauzatu berri dute orain; iragan astean jendameek atxilotu, Espainiako Auzitegi Nazionalera eraman, eta gero, Soto del Realen espetxeratu zuten Patxi Segurola.

Jokin Errasti aske utzi zuten egun berean atxilotu zuten aginagarra, irailaren 26an. Hainbat orduz senideek ez zuten Segurolaren berririk izan. Biharamunean, Espainiako Auzitegi Nazionalen atxilotetaren zergatiak azaldu zizkieten eta Soto del Realen espetxeratu. Asteburuan zehar senideek Patxi-rekin egoteko aukera izan zuten. Onik zegoela adierazi zuten. Soto del Realen jarraitu zuen ahalik eta aste hasieran, Espainiako Auzitegi Nazionalen 5. sekzioaren epailearen aurrera deklaratzera eraman zuten arte. Deklarazioa hartu ostean, eta "ihes egiteko arriskua" dagoela argudiatuz, espetxera bidali zuten irailaren 30ean Patxi Segurola.

Atxilotetaren berri izan zenetik, aginagarrak bizi duen egoera salatu, aske uztea eskatu eta elkartasuna adierazteko mobilizazioak burutu dira Usurbilen; elkarretaratze eta batzar informatiboak. Iragan larunbatean Kaxkoko kaleak, Patxiaren senide, lagun eta herritarrek eskuak lotuta inguratu zuten giza-kate baten bidez. Usurbildik bakarrik ez, azken urteotan Segurola konfinatuta izan duten Autunetik ere aginagarraren egoerarekiko kezka agertu eta elkartasuna adierazi diote hainbat lagunek egunotan.

Ostegun honetarako ezohiko osoko bilkura deitu da udaletxean, arratsaldeko 18:00etan. Besteak beste, Patxi Segurolaren estradizioari loturiko mozioa aurkeztuko du EH Bilduk.

Zazpi taberna, Tipi-Tapako denboraldi berrian



Igande honetan abiatuko da Tipi-Tapa, perretxikoez eginiko pintxoekin. Trikitilariak girotuko dute pintxo-jana.

Indartuta, bueltan dator igande honetan Tipi-Tapa ekimena. Berrikuntza ugariarekin; zozketak hile- ro egingo dira aurrerantzean, pintxo bereziak dastatzeko taberna gehiago egongo dira, eta Tipi-Tapa txartel handiagok eskuratu beharko dira.

Garaian garaiko produktu baten inguruan gauzatuko da Tipi-Tapako edizio bakoitza. Igande honetako hitzorduan, perretxikoez eginiko pintxo bereziak dastatu ahal izango dira 2 eurotan, edaria barne dela (urteko ardo zuri, gorri edo beltza, txakolina, sagardoa, zurtoa, muztioa edo ura). Edo pintxo bakarrik, 1,5 euroren truke. Tabernariak herritarrei zerbitzatuko dizkieten zizkamizkak nola elaboratu pentsatzen hasiak dira. Aurreratu ditugutenez, besteak beste, onddo gutizia, piper beteak, krepak... ahoratu ahal izango dira. Guz-

tia, aipatu moduan, perretxikoe- kin noski.

BI TABERNA GEHIAGO

Gogoan izan, ohi bezala, hile- ro lehen igandeetan ospatuko da Tipi-Tapa. Denboraldi honetan, hilabete honetatik datorren ekainera arte. Eguerdian hasi eta bazkal ordura arte luzatuko da, 15:00ak arte. Eta hemen berrikuntzetako bat; aurrerantzean, bost ez, zazpi tabernetan prestatuko dituzte pintxo bereziak. Iaz ibilbide gastronomiko honetan parte hartu zuten bost tabernetan, hau da, Txapeldun, Artzabal, Bordatxo, Aitzaga eta Txiribogan. Eta estreina- koz, taldera batu diren beste bi edaritegitan; Xarman eta Txirristan.

Zazpi taberna, honenbes- tez, zazpi zigilu beharko dira aurreko edizioetan bezala, aurrerantzean egingo diren eros- keta baleen zozketan parte

hartzeko. Honek Tipi-Tapa txartela bera egokitzea ekarri du. Eta aipaturikoa, orain, ibilbide gastronomiko osoa zazpi tabernetan pintxoak dastatzu osatu ahal izango da. Zigilu guztiak lortuta, edaritegi hauetan egongo diren kaxetan txartela sartu eta zoz- ketaren zain geratu behar. Zozketetan dago hain zuzen, beste nobedadea. Orain arte bi hilean behin, Hurbilago El- karteko establezimenduetan xahutu zitekeen 300 euroko erosketa bale bat zozketatzen zuten antolatzaileek. Aurre- rantzean, Tipi-Tapak hilero saritu bat izango du. Edizio guztien amaieran, taberneta- ko kaxetan dauden txartelen arteko zozketa egingo da. Eta hilero, 150 euroko erosketa balea irabazi ahal izango du norbaitek. Denboraldi berriko lehen zozketa igande honetan bertan egingo da, Txiribogan, arratsaldeko 15:00etan.

Bi lorazain kontratatzeko lan deialdia

Gipuzkoako Foru Aldundiaren diru- laguntza bati esker, Usurbilgo Uda- lak bi lorazain laguntzaile kontra- tatu nahi ditu, 5 hilabetez eta aldi baterako. Hautaketa prozesuan parte hartzeko, ondorengo baldin- tzak bete behar dira:

- Lan eskatzaile gisa Lanbide era- kundan izen emanda egotea, langabetu bezala.
- Mendebaldeko Donostialdeako udalerrietakoren batean errola- tua egotea (Usurbil, Lasarte- Oria, Andoain, Urnieta, Hernani, Astigarraga).
- 6 hilabetetako esperientzia lora- zain laguntzaile lanbidean.
- Euskara: ahozko erabilpen ego- kia.

Hautaketa prozesuan parte har- tzeko www.lanbide.net orrialdean zabalduko da eta izena eman ahal izango da urriaren 2tik urriaren 10 arte. 2 lanpostu hauetarako lehen- tasuna izango dute:

- Hautapen data aurreko hamabi hilabeteen barruan langabezia laguntza edo prestazioa amaitu dutenak.
- Azkeneko lan harremana enple- gu eskaintzaren data aurreko bi urteetan amaitu izana.
- Langabezia laguntzarik ez jaso- tzea.
- Diru Sarrerak Bermatzeko erren- taren jasotzaileak.

Hautaketa prozesu honetan par- te hartuko dutenak, Lanbiden izen ematea ziurtatua denean, eskaera bat egin beharko dute Usurbilgo Uda- lean eta honekin batera NAN-a eta lan bizitzaren kopia eguneratua (urriaren 2 aurretiko egoera jasotzen duena) aurkeztu beharko dute.

JE JON ELORZA
IGELTSERITZA OROKORRA
Obrak eta erreformak
661 804 688
 San Esteban 5, boxua USURBIL jon.elorza@hotmail.com

TXAPELDUN
TABERNA
 razioak
 ogitartekoak
 plater konbinatuak...
 Muna lurra 2, 943 11 82 53

TAXI
607 92 87 70
943 00 44 83
Angel (24h) USURBIL

Ikasleek ikasturte hasieran bizi dituzten aldaketek galdezka

Hilabeteetako parte hartze prozesuaren ostean, iazko ikasturte amaierarako eratua geratu zen Hezkuntza Mahaia lanera itzuli da. Esku artean jada, badute lantzen hasteko gai bat; “ikasturte berriarekin batera ikasleek bizitzen dituzten aldaketak”. Gai zabala dela dio Hezkuntza Mahaian biltzen den herritar eta eragile taldeak. “Aldaketa hauek hainbat eratakoak izan daitezke: etxetik eskolara; beste ikastetxe batetik Udarregira; ikastetxe berean, eraikin batetik bestera (Haur Eskolatik Agerialdera, Agerialdetik Udarregira); etapa batetik hurrengora (HHTik LHra, LHtik DBHra); maila batetik bestera; errepikapenak; ikasturtea hasi ondoren datozenak”, zehaztu dute.

Gaia guraso eta ikasleekin jorratu asmo dute, “prozesuan bertan adostu zen moduan”. Horregatik, ikastetxe bakoitzak galdetegi bat bidaliko die familia bakoitzari. “Familiek izandako bizipenak kontatzeko aukera izango dute”, iragarri dute Hezkuntza Mahaitik. Galdetegiari eran-



Familia bakoitzak galdetegi bat jasoko du.

tzun eta ikastetxeetara helaraztea eskertuko lukete.

Modu honetan, guraso eta ikasleen iritzia eta bizipen pertsonalak jaso nahi dituzte.

LOMCEREN AURKAKO MANIFESTAZIOA

“Euskal Herrian gure hezkuntza eraiki! LOMCE-ri ez!” lemapean, manifestazio nazionala deitu dute Bilbon urriaren 12rako, eragileok: Ikastolen Elkartea, Sortzen, EHIGE, Bihe, Sarean, Ikasle Abertzaleak, Nize, ELA, LAB, STEE-EILAS, UEU, Hik Hasi, CCOO eta Kontseiluak. Urriko bigarren larunbat arratsaldeko 17:30etan abiatuko da manifestazioa, Jesusen Biho-

tzetik. Usurbilgo Hezkuntza Mahaia ere bat egin du deialdi honekin. Herritarrei Bizkaiko hiriburuan deitu den mobilizaziora joateko gonbita luzatzen diete. Usurbildik Bilbora joateko autobusa antolatu dute.

AUTOBUSA BORDATXOTIK

Urriaren 12an, 16:00etan abiatuko da Bordatxo taberna ondoko errotondatik. Autobuserako izena emateko epea urriaren 9ra artekoa izango da, Udarregi Ikastolan, Aginaga eta Zubietako Herri Ikastetxeetan, eta Bordatxo tabernan. Autobuseko prezioa, egunean bertan zehaztuko dute.

Igandean Kilometroak, Tolosan

Ahora!” lemapean ospatuko da urriaren 6ko jaialdia. Tolosan aurtan, Lasakorain ikastolaren alde. Eta nobedadeekin; Gipuzkoako 21 ikastoletako ikasleak partaide izango dituen abenturazko lehiaketa edota eskaintza ibiltaria ohiko ikuskizun, kontzertu eta jan edanez gain. Egitarau osoa, www.kilometroak.net

atariari duzue. Esparru guztietan euskara erabili ahal izatea aldarrikatu nahi da aurtengoan. Tolosara bertaratzeko garraio publikoa baliatzea aholkatzen dute. Igandeko hitzorduaren ostean, oriotarrek hartuko dute, 2014ko Gipuzkoako ikastolen aldeko jaialdia antolatzeko ardura. Eta 2015ean, Kilometroak Usurbilen.



Tolosara joateko garraio publikoa erabiltzea aholkatu dute.

Gobernu eredu berri bat jarri nahi da martxan

Gipuzkoako eskualdeetako eragileek lurralde garapeneko estrategiak diseinatzeko lanetan parte hartzea sustatu asmo du Foru Aldundiak. Guztia bi aldeak, Aldundia eta eskualdeetako garapen agentzia edo parekoak diren erakundeak elkarlanean jarrita. Modu horretan, gobernu eredu berri bat eratzea da erronka nagusia. Gai honen harira, Aldundiak eskualdeekin hitzarmenak sinatzeko asmoa du. Tartean Buruntzaldearekin. Bailara honek ordea ez du garapen agentziarik. Horregatik, Buruntzaldeko udal guztiek Aldundiarekin egitasmo hau gauzatzeko lankidetzara hitzarmena sinatzea erabaki da. Usurbilgo Udaletxeko azken plenoan, EH Bildu eta PSE-EE alde agertu ziren, Hamaikabatek abstentziora jo zuen.

Buruntzaldeak garapen agentziarik ez duenez, Hernaniko Udalak ordezkatuko ditu bailarako gainerako udalak; Andoain, Astigarraga, Lasarte-Oria, Urnieta eta Usurbil. 38.643,30 euroko dirulaguntza jasoko du. Eta trukean, honako konpromiso hauek hartuko ditu Hernanik:

-Bi teknikariren lankidetzara eta parte hartzea Foru Aldundiak antolatuko duen prestakuntza tailerretan (urte batez).

-Eskualde arteko mahaien antolakuntzan lagundu eta bertan parte hartzea.

-Kanpo ikuskaritzak finkatutako daten arabera ikuskatze programa bat segitzea.

Arau subsidiarioak

Hiri Antolamenduko Arau Subsidiarioetako eraikuntza eta erabileraren ordenantza hasieraz aldatzea onartu zuen udalbatzak, irailaren 24ko osoko ohiko bilkuran. EH Bildu eta PSE-EEk babestu zuten proposamena. Hamaikabat udal taldea abstenitu zen. Ordenantzaren aldaketa jendaurrean egongo da ikusgai 30 lan egunez.

Xoxote eta Debara asteburu pasa

Hilabetero antolatu ohi duten irteeretan hurrengo, urrikoa, bi egunetarako izango da. Andatza Mendizaleen Kirol Taldeetik Azpeitiko Xoxote mendira igo, eta gero, Deba aldera jotzeko proposamena egiten die mendizaleei, urriaren 12 eta 13rako. Animatzen direnak urriaren 9a baino lehen eman beharko dute izena. Prezioak; 25 euro Andatzako bazkideek eta langabetuek; 28 euro gainerakoek. Prezioaren barne, Xoxoteko aterpetxean egingo duten gaia; afaria, loa eta biharamuneko gosaria. Ordainketak, albiste honetan beherago ageri den Kutxabankeko kontu korrante zenbakian egin beharko dira.

Informazio gehiago www.andatza.com web orrialdean eskura daiteke. Baita urriaren 10ean, 19:00etan Sutegin antolakuntzak deitu duen argibideak emateko bileran. Urriaren 12an, goizeko 7:00etarako finkatu du irteera hitzordua Andatzak, Usurbildik oinez abiatzeko. Aipatu moduan, bi ibilbide egiteko aukera egongo da; Usurbil-Xoxote larunbatean (urriak 12). Eta Xoxote-Deba igandean (urriak 13).

Usurbil-Xoxote-Deba (urriak 12-13)

- Egunak: urriak 12-13.
- Irteera: urriaren 12an, 7:00etan Oiardo Kiroldegiko aparkalekutik.
- Izen ematea: urriaren 9a baino lehen: Andatzako bazkide eta langabetuek: 25 euro. Gainerakoek: 28 euro.



Datorren asteburuan egingo dute irteera. Urriaren 10erako bilera deitu dute Sutegin, 19:00etan.

- Prezioaren barne: Xoxoteko aterpeko pentsio erdia (afaria, loa, eta gosaria).
- Ordainketak: Andatza Mendizaleen Kirol Taldeko kontu korrante zenbakian: 2095 5069 07 1068489805 (Kutxabank)
- Oharra: argibide gehiago, urriaren 10ean 19:00etan Sutegin / www.andatza.com
- Antolatzailea: Andatza Mendizaleen Kirol Taldea.

Kirol eskaintza Aginagan

2013-2014 ikasturterako jarduera fisikoko ikastaroen eskaintza Aginagan, urritik ekainera: 3. Adina mantentze gimnastika (astelehen eta asteazkenetan 10:00-10:50), Pilates (astelehen eta asteazkenetan, 9:00-9:50), Zumba (astelehen eta asteazkenetan 19:00-19:50), tonifikazioa + gap + luzaketak (astelehen eta ostegunetan, 17:00etan).

Estitxu Berasategi, Madrilera

Usurbil Kirol Elkarteko kidea, Espainiako Selekzioan parte hartzeko deitua izan da. Urriaren 26tik azaroaren 3ra, Madrilen kontzentratu eta ondoren, Frantzia txapelketak jokatzeko aukera izango du.

Eskubaloia liburua salgai

Usurbil Kirol Elkartean 50 urteotako ibilbidea jasotzen duen liburua 15 eurotan salgai dago NOAUA!ko egoitzan, baita Lizardi eta Laurok liburu dendetan ere. Kirol bilgunearen hamarkada hauetako pasarteak, argazkiak, bitxikeriak, lekukotzak, lortutako garai-penak eta abar jasotzen ditu kalean den argitalpen berriak.

Futbol partidak

Urriak 5, larunbata, Haranen

10:00 Kadete neskek Hernani-Usurbil.
12:00 Neskek. 16:30 Jubenilak.

Kirol zerbitzuen araudia egokitzen da Udala

Iragan otsailaren 12an desegin zen Kirol Patronatua, eta ordutik, kirol zerbitzuen kudeaketa Udalen gain dago. Aldaketa honek, moldaketa gehiago egin beharra ekarri du orain. Lehendik, Kirol Patronatuak egina zuen Kirol Zerbitzuen Araudi Nagusia egokitu asmo du Udalak. Proposamen hau mahai gainean jarri zuen gobernu taldeak, irailaren 24an burutu zen osoko ohiko bilkuran. Aho bateko hasierako onarpena eman zion udalbatzak. Orain, hartutako erabakia jendaurrean jarriko da, Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean iragarkia argitaratu eta hurrengo lan egunetik zenbatzen hasita, 30 lan eguneko epean.

Tarte horretan inolako alegaziorik aurkeztuko ez balitz, aipatu araudi honen egokitzapena behin betikoz onartutzat joko da. Egindako mol-



Kirol patronatua desegin ondoren, Udalen gain dago kirol zerbitzuen kudeaketa.

daketak, gehienbat terminologikoak direla azaldu zuen Mertxe Aizpurua alkateak osoko bilkuran bertan, bozkatu aurretik, adierazpenen tartean.

ETXEBIZITZA**Salgai**

San Inazio 1,5^a pisua salgai. Sukaldea, sala, komuna, 2 gela (lehen 3) eta trasteroa. Bizitzen jartzeko moduan badago ere berrikuntza behar du. Oso argitsua bista ederrekin. Igogailu berria du. Usurbil erdian. Aukera ona. Prezio paregabea 150.000euro. 626110923

Baxua salgai Errekabizitza (61 m2) + pisu azpiko trastelekua (61 m2). 2008ko obra berria. Logela, ikasgela, egongela-jangela-sukaldea eta komuna. Aire egokitua, bero-gailua, beira bikoitzeko leihoak... oso funtzionala. Bizitzen jartzeko. 649 895 858

Pisua salgai Munalurran. 637 309 209.

Santuenean pisu bat salgai. Erreformatzeko, prezio onean, aukera ezin hobea. Iñaki (665736896)

Pisu bat salgai Munalurran. 3 logela, 65 metro, berrituko. Fatxada eta portala berritu berriak. 138.000 e. 617 972 350.

Atiko bat salgai Zubietan 110m2. 2008-an guztiz berritua. 3 logela handi, 2 komun, 30 m2 egongela. Haize egokitua. 250.000. 669 781 959 Julien.

Etxebizitza salgai Kalezarren, 120 metro koadro. 16 m terraza, 80 m jardina eta garaje itxia 2 plaza. 676 453 176.

Roller etxeko modulo bat salgai Errioxako Fuenmayor herriko kanpinean. Informazio gehiagorako: 615 760 461.

Pisua salgai Munalurran, guztiz berritua, 1. pisua igogailu gabe, +60metroko trasteroaren pisu azpian. 2 gela, aire egokitua, kalfakzioa, parket... ikusgarria. 200.000 euro. 636393237.

Etxebizitza salgai Munalurran. Dena kanpo aldera. 3 gela, sukaldea egongelarekin, komun bat, eta terraza bat armairu batekin eta dena itxita. Tel. 637 225 620.

Pisua salgai Atxegalden. Sukaldea, egongela handia, 3 logela balkoiekin (horietako bat itxia), bi komun, igogailua eta ganbar handia. Lehen 240.000 euro, orain 190.000 eurotan. 662 056 899.

OHARREI DAGOKIEN ARAUTEGIA

Orri honetan agertzen diren oharrak doakoak dira. Telefonoz edo emailaz helarazi daitezke: 943 360 321 / erredakzioa@noaia.com Oharrak bidaltzeko azken eguna: astelehena, arratsaldeko 18:00ak. Atal bakoitzaren goikaldean ipiniko ditugu berrienak. Oharra egokia ez dela erabakiko balitz, NOAIA!k ohar hori argitaratu gabe utziko luke.

Pisu bat salgai Atxegalden. 3 gela, bi komun, sukalde eta salarekin. 662 439 880.

Pisua salgai Kaxkoan. Pisu berria, lehen mailako materialekin egina. 608 227 462. Prezioa jaitsi dugu; orain, 36 milioi pezeta-tan (216.000 euro inguru)

Etxebizitza salgai Santuenea auzoan. 64 metro karratu. Dena kanpoaldera. Egoera ezin hobea. Merkea, 678 581 991.

Etxebizitza salgai Kalezarren bista ederrekin. 2 solairu, bakoitza 115 metro koadro. Eta 2 solairuko borda dena 3.000 m² lur saillean. 665720913 / 665720914

Kaxkoan atiko berria salgai. 2 logela, sala, komuna, sukaldea eta 2 terraza handi bista ederrekin. Trasteroa eta garajea. 665720913 / 665720914.

Pisua salgai, San Esteban kalea 11n. 4. pisua. Kanpoaldera ematen du, eguzkitsua. Hiru gela, sukalde eta jangelarekin, komuna, terraza eta ganbarekin. 943 455 202 edo 697 530 792.

Pisua salgai, San Ignazio 5.3 gela, 100 metro koadro, terraza. 340.000 euro. 648 013 277

90 m pisua salgai Usurbilen. 3 logela, egongela, sukaldea, 2 komun, 7 metroko ganbara. Oso eguzkitsua, bizitzen jartzeko. 699680265. 32 milioi pezeta. 172.000€

Duplex bat salgai Santuenean, espazio zabala, dena kanpo aldera, 20 metro koadro trasteroa, berritua, fatxada, teilatua konpondu berriak. 677 471 648.

Atxegalden lau logeletako pisua salgai. Dena berriturik. Prezioa: 251.000 euro. 699 720 940.

Alokairuan

Etxebizitza eguzkitsua alokairuan

Etxebizitza. Bi gela, bainugela, sukalde handia eta egongela bi-menearekin. 620565731.

Kaxkoan pisu bat alokatzen da altzariekin, 3 logela, 2 komun, egongela, sukaldea eta trasteroaren. 618 860 270

3 gelako etxebizitza alokatzen da 700€ gehi gastoa. Gelak ere alokatuko genduzke. 630713583

Kaxkoan pisu bat alokatzen da, 3 logela, sukaldea, egongela, komuna, ganbara eta igogailuarekin. 943 371 495 - 695767821-657711335

Gela bat alokatzen da dena berritua kaxkoan, gizaseme langile jubilatu bati. Etxe lasaia. Atzerriarrik ez. Tel. 687 348 223.

Alokairuan dagoen etxebizitza konpartitzeko pertsona baten bila nabil. 661568471

Logela bat alokatzen da Usurbilgo pisu berri batean. 657 700 408

Bi solairuko etxebizitza alokairuan Kalezarren. Baratzea egiteko aukera. 665 720 913.

4 logeletako etxebizitza bat alokatzen da Atxegalden. 659389707 nerezabala1@gmail.com

Pisua alokairuan Santuenean, 65m berritua, 2 logela, 650 euro. Tf: 667 438 145.

Alokairuko pisu baten bila nabil Usurbilen. 674 848 346

Pisu bat alokatzen da, lau gela, sukaldea, sala eta komunarekin. 609 011 816 / 943 366 318

Usurbilen edo inguruan, alokairu konpartituan etxebizitza baten bila nabil 622 856 181.

MOTORRA**salmenta,****garajeak**

Garaje itxia alokatzen da Txaramunto auzoan. 15 metro karra-

tukoa. Tel. 667 71 50 75

SsangYong autoa salgai, Mercedes motorduna. Egoera onean. 1.500 euro. Joxe Mari 943361512

Garaje itxia salgai. 20 m karra-tuak. Kale nagusia, 26. Usurbil 23.000 euro. 674 343 184

Opel Zafira salgai, 1.7 81 cv. 2010eko urrikoa. 25.000 km. Oso egoera onean. 652759267

Seat Ibiza 1.4 Tdi 80 zaldi. 58.500 km. 2009 urte amaierakoa, 5 ate, txuria. Jabe bakarra, ez erretzailea eta beti garajea.

Kale nagusian garaje itxi bat alokatzen da: ate automatikoa eta kobrea eta motoa sartzeko modukoa 667984083

Garaje itxi bat alokatzen da Artzabalen, frontoi ondoan. 647120253

Lokal bat alokatzen da Atxegalden. 2 solairu ditu, eta 90 metro. Tel. 653 714 672.

Txaramunto kalean garaje itxia alokatzen da. 620 416 963.

LANPOSTUAK**Lan eskaerak**

Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. Tel. 608 34 04 84

Etxeko lanak egiteko, pertsona helduak edo umeak zaintzeko prest nago. Tel. 696 83 55 69

Usurbilgo neska euskaldun bat eskaintzen da arropak konpontzeko eta goizez etxeak garbitzeko. 696 601 795

Usurbilgo neska euskalduna, tituluduna eta esperientziaduna, haurrei ingeleseko klase partikularrik eman edo etxerako-lanetan laguntzeko prest. 670461180. E-maila: oli_ireth@hotmail.com

Klase partikularrik ematen ditut, LH-DBH. Irakaskuntza ikasketak bukatzeaz eta lan honetan esperientziaduna. (618598071 Izaro)

Zerbitzari moduan, helduak zaintzen, umeak zaintzen edo saltzailer moduan lan egingo nuke. Tel. 690 079 418.

Klase partikularrik ematen ditut edozein irakasgaietan. Esperientziaduna. Orduetegi eta prezioak

adosteko erabateko malgutasuna. 634417969(Amaia)

Udan edo ikasturtean zehar umeak zaintzeko prest nago. Lan honetan esperientzia duen neska. 653724338

Erizaintzan graduatua naiz eta gaitasun pertsona ezin zain-ketak emateko prest nago. (688801502 Irati)

23 urteko neska euskalduna naiz eta haurrak zaindu zein klase partikularrik emateko prest nago. Esperientziaduna. (630682716 Maddi)

Haurrak zaintzeko prest nago udan zehar goizez zein arratsalde. Irakaskuntza graduatutaz eta aisialdi talde batean begirale lanean (688803821 Uxue).

Klase partikularrik ematen ditut ikasturtean zein udan. Irakaskuntza ikasketak eta errefortzu klaseetan esperientziaduna. (647142701 Amaia)

Haurrak zainduko nituzke goizein arratsalde. Irakaskuntzan diplomaturik. (647142701 Amaia)

Auxiliar geriatria eta sukaldari bat eskaintzen da, paper, esperientzia eta nazionalitatearekin, adineko pertsonak zaintzeko. 10 urteko esperientzia sukaldean, garbiketan. Arduratsua. 622 487 879.

Umeak zaintzen, garbiketan eta zerbitzari lanetan lan egingo nuke. Paperak eta esperientzia ditut. Tel. 666 773 813.

Neska bat eskaintzen da, esperientziaduna haurrak edo helduak zaintzeko. Edozein ordu-tan lan egiteko prest. 660041361

34 urteko neska arduratsua eta formala etxeko lanak egiteko lan bila, plantxatu, janaria prestatu... Garbiketa lanetarako oro har. 633 921 026 (Alejandra)

Matematikako klase partikularrik ematen ditut 672 427 870. Goi mailako ingenieritza ikasketak egin ditut.

Euskara klaseak ematen ditut. Euskal filologian lizentziatua eta irakaskuntzan esperientziaduna. Haur eta gazteentzako klaseak. Azterketen prestaketa (EGA, HABE, IVAP, IRALE). 653 710 073

**Zorionak Ekhi!**

Zorionak morroxko! 2 urte egin dituzu, jarrai dezazula holaxe eta oso ondo ospatu!! Muxu haundi bat denon partetik!

**Zorionak June!**

Urriaren 3an 10 urte betetzen dituzu. Zorionak eta ondo ondo pasa familiaren partez.

Ohar, zorion-agur, jaio edo hildakoen berri emateko azken eguna: asteartea, eguerdiko 11:00etan erredakzioa@noaia.com

Neska euskalduna, 47 urte ditut. Geriatriako titulua dut eta arratsaldetan jendea zaintzeko prest nago. 618 558 842

Usurbilgo neska gazte ardura-duna, arratsaldeetan 6-12 urte-tako umei, inglesa irakasteko prest, baita etxeko lanak egiten laguntzeko. Esperientzia daukat. Prezioa adostuko da: 684092731

Esperientzia haurrak zaintzen, Udajolaseko begirale eta haur hezkuntzako ikasketekin. 661 626 500 (Maialen).

Neska gazte esperientziaduna, akademian lan egindakoa, LH 1. mailatik Batxilergoko 2. mailara arteko ikasleei klaseak emateko prest. 685 772 602 (Nerea)

24 urteko mutil bat eskaintzen da LH-ko eta DBH-ko klase partikularrek emateko. 636601644

Matematika klaseak, maila guztietan, 19 urtetako esperientzia, 646717676

Neska gazte esperientziaduna, heziketa premia bereziak dituzten ikasleei klase partikularrek emateko prest. 688 661 997 (Garbiñe).

Neska gazte bat eskaintzen da umeak zaindu eta klase partikularrek emateko. Telefonoa: 660 778 314 (Maddi)

21 urteko neska usurbildar euskaldun bat, haurrak zaindu edota klase partikularrek emateko LH-n nahiz DBH-n. Esperientziaduna. 666 041 971 (Ane)

Jardineritzako lanak egiten ditut txukun eta modu onean: 677 443 140 (Iñaki).

18 urteko mutil bat lanerako prest. Baratzean laguntzeko, morroi lanetarako, tabernan lan egiteko... 626 735 354.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. 636929990.

Helduak zaindu edota etxeko lanak egiteko. Orduka edo inter-na moduan. 608 774 999.

Interna moduan edo orduka lan egingo nuke. Telefono zenbakia: 609 632 030.

Zerbitzari edo sukaldari laguntzaile moduan lan egingo nuke. 650 032 454.

Esperientzia handia, arduratsua den neska eskaintzen da garbiketa lanetarako. 618 030 296.

Ontziak garbitzeko edo sukaldari laguntzaile gisa lan egingo nuke. 677 108 568

Emakume esperientziadun bat umeak edo pertsona helduak zaindu eta etxeko lanak egiteko. Claudia. 663 117 579.

Gizonezko bat eskaintzen da,

jatorriz euskalduna, edozein lanetarako. Helduak zaindu, sukaldean lagundu edo baserri-ko lanetan aritzeko. 627 206 451.

Emakume bat eskaintzen da, adineko pertsonak zaintzeko, etxeko lanak egiteko ostalaritzarako, inter-na moduan 673445 903.

Emakumea eskaintzen da, orduka etxeko lanak egiteko. 662 247 324

Umeak zaindu arratsaldez edo zerbitzari gisa lan egingo nuke asteburuetan. 638 894 845.

Lan eskaintzak

Pizza banatzailea behar da Usurbilgo taberna batean. Telefono zenbakia: 9433743 30

BESTELAKOAK

Aurtengo eta hemengobabarrunak

salgai, artoarekin batera eginda. 637974994

Telebista salgai, Sony markakoa. Egoera onean eta prezio bikaina, 80 euro. 653 014518

Pedaligabeko bizikleta bat utzi nuen frontoian, ostiralean edo larunbatean. Decathlon-ekoa, kolore urdina, gorria eta txuria. 605 730 816.

Kolore more eta grisduen nesken-tzakobizikleta berria (Coluer) lapurtu ziguten abuztuaren 31n arratsaldean, tren geltoki inguruan. Aurkitzen baduzu, deitu 689 769 282

Aginagako artoa salgai 687706363

Teniseko raketa bat aurkitu da Erreka Txiki parkean. 943 371 044.

Usurbilgo baserri batean hazitako oilasko eta untxiak saltzen ditugu. 652 725 022.

Botilei tapoiak jartzeko enkortxadora bat salgai, 100 euro. Asadore elektriko bat, 100 euro. 943381235

Erosi gasolina sorgailu elektrikoak, berria erabili gabe, 80 euro. 689880561

Hemengo intxaurra erosiko nuke, deitu 634 409 888

Erromeri talde baterako, tronpetata eta tronboi jole bila gabiltza uda honetako kontzertuetan hasteko. 660214740

Ezkontzetan, festetan edo antolatzen dituzuen ospakizunetarako Dj lanak egiteko prest. 615 713 204 edo djlarra@usurbil.com

Usurbil eta inguruetan belardiak hartuko nituzke, belar ondua egiteko. 667406010.

2. eskuko josteko makina bi salgai. Modu onean. 943 36 32 01.

Su egurra salgai. Haitza eta Pagoa. 667 232 300.

Artzai txakurkumeak Orbea arrazakoak salgai 637 974 994

Ezkontzetan abesteko talde bokal bat nahi? 665 745 071 (Iñaki).

Ezkontza zein ekitaldietan abesteko kantari lirikoa. Maketa bat entzungai daukat. 690784113.

TRUKEAN, OPARI

Inprimatzaileak, telebistak, patineteak, eskegailuak, haurren kotxe kapotak, bi kanpin denda handi, bizikleta estatikoa, ispi-lua, liburuak, haur jolasak... Garbigunean. Doan hartu daitezke. Astelehenetik ostiralera: goizez, 10:15-13:00 artean; arratsaldean, 16:00-19:00 artean. Jai egunak ez diren larunbatetan: 9:00-13:00 artean.

Telefono interesgarriak

Udala	943 371 951	Abere-Landare Babeslea	943 376 650
Atez ateko bulegoa	900 776 776	Taxia (Angel)	607 928 770
Udaltzaingoa	943 361 112	Taxia (Joxe Kruz)	677 373 466
Udal zerbitzuak (Brigada)	943 370 148	Eusko Tren	943 470 976
Sexu Aholkularitza Gunea	697 919 516	LurraldeBus	943 000 117
Gizarte Zerbitzuak	943 377 110	Korreos - posta zerbitzua	943 362 894
Diputazioa - Basetxea	943 361 215	Anbulategia	943 362 013
Bake Epaitegia	943 372 336	Oa botika	943 376 076
Udarregi Ikastola	943 361 216	Iturralde botika	943 363 395
Haur Eskola	943 374 061	DYA	943 464 622
Zubietako Lanbide Eskola	943 364 600	Gurutze Gorria	943 272 222
Zubietako Herri Batzarra	943 372 077	Emergentziak	112
Hastapen tailerrak	943 360 465	Genero-indarkeria, arreta ..	900 840 111 / 016
KZgunea	943 023 684	Gonzalez Ehorztetxea	943 362 163
Oiardo Kiroldegia	943 372 498	Gipuzkoa Donostia Kutxa	943 361 202
Sutegi Udal Liburutegia	943 360 692	Euskadiko Kutxa-Laborala	943 364 740
Zumarte Musika Eskola	943 371 594	Banco Guipuzcoano	943 370 006
Etumeta AEK Euskaltegia	607 609 379	Banco Popular Español	943 370 411
Kalezar Eguneke Zentroa	943 365 249	BBVA	943 377 155
Gure Pakea Zahar Egoitza	943 368 770	Caja Rural Kutxa	943 368 842
Gure Elkartea Zahar Egoitza	943 371 751	Argindarra - Iberdrola	901 202 020
Arrate Zahar Egoitza	943 366 340	Gas naturala - Naturgas	902 123 456
Usurbilgo Salbatore Parrokia	943 361 239	Telefonica	1004
NOAUA! Kultur Elkartea	943 360 321	Euskaltel	900 840 840

Goardiako farmaziak urriak 3-urriak 13

Osteguna 03	RODRIGUEZ	K. Nagusia 42 Lasarte
Ostirala 04	GIL	Kale Nagusia 24. Lasarte
Larunbata 05	GANDARIAS-URIBE	Iñigo Loiola kalea, 9 Lasarte
Igandea 06	GANDARIAS-URIBE	Iñigo Loiola kalea, 9 Lasarte
Astelehena 07	ACHA-ORBEA	Hipodromo etor. 6. Lasarte
Astearte 08	URBISTONDO	San Franzisko 1 Lasarte
Asteazkena 09	GANDARIAS-URIBE	Iñigo Loiola kalea, 9 Lasarte

Osteguna 10	ORUE	Jaizkibel 2. Lasarte
Ostirala 11	DE MIGUEL	Kale Nagusia 32 Lasarte
Larunbata 12	ORUE	Jaizkibel 2. Lasarte
Igandea 13	ORUE	Jaizkibel 2. Lasarte

* LARUNBATETAN,
Usurbilgo bi farmaziak irekita
egongo dira: 9:00etatik
13:30era.

GOARDIAKO FARMAZIA, GAUEZ
Garikoitz Aldabe. Perkaiztegiakalea 8
(Antziola). Hernani. 943 336 022
22:00 - 09:00

Agenda urria

4 ostirala

- **San Praixku Eguna Aginagan** (ikus 8. orrialdea).
- **Ziortza DBH4koen ikasturte hasiera** 19:30ean Parrokian.

5 larunbata

- **Oilasko Biltzaileen Eguna Aginagan** (ikus 8. orrialdea).

6 igandea

- **Tipi-Tapa** ibilbide gastronomikoa, 15:00akarte.
- **Omenaldia 80 urteko herritarrei.** 12:00 Meza. 14:00 Bazkaria Atxega jatetxean.
- **San Praixku jaiak Aginagan** (ikus 8. or).

Ziortza Gazte Elkartekoek aste honetan hasiko dute ikasturtea

Egunotarako iragarri dituzte lehen saioak Ziortza Gazte Elkartekoek. Guztiak, 19:30etatik aurrera, egunotan:

DBH 3: urriak 3, osteguna.
DBH 4: urriak 4, ostirala.
DBH1: urriak 11, ostirala.
DBH 2: urriak 11, ostirala.
16-17 urtekoak: urriak 11, ostirala.

Jokoak, giro ona, kanpamendua, ibilbideak, elkarbizitza... Ziortza Gazte Elkartea hori guztia eta gehiago izan da, bilgunean parte hartu duten guraso, begirale eta gazteentzat. 25 urte bete zituen 2010eko udaberrian.



Izena eman behar da aldeaz aurretik.

Datozenak

Organo kontzertua Salvatore parrokian

Bernhard Marx organo-jole alemaniarren eskutik, urriaren 12an, 20:00etan Salvatore Elizan. 1972az geroztik Friburgoko Johanneskirche elizako organo-jotzaile tituluduna da. Organo irakaslea da hiri horretako Pedagogia Akademian. 1979an bigarren saria lortu zuen Nazioarteko Organo Lehiaketan, Saarbrücken.

Urriaren 12an, Euskal jaia Zubietan

Ohi bezala urriaren 12an, aurten larunbatez. Honatx egitaraua:

12:00 Trikitilariak eta euskal arrazako animalien erakusketa.
Ondoren, hamaiketakoa eta kantu-jira.
14:00 Herri bazkaria Araeta jatetxean.
18:30 Erromeria Itzartu taldearekin.
Antolatzailea: Zubieta Lantzen.

Buruntzaldeko Ibilbideen Eguna

Bailarako udalek antolaturiko ekimena urriaren 13an ospatuko da, goizez. 9:00-14:00 artean. Ohi bezala, bailarako herri batetik bestera joateko oinezkoentzat egokituak dauden bideak ezagutzeko gonbita luzatuko dute beste behin, Buruntzaldeko udalek.

Datorren hastean hasiko da Esperientzia Eskola

Interesa pizten duten arlo horietan trebatu eta lagun taldea indartu, horretarako eta gehiagorako aukera ematen du Esperientzia Eskolak. Lehen hitzordua, urriaren 8rako finkatu dute. Saioak astearte arratsaldetara izango dira Artzabalen, 16:00-18:00 artean. Izena doan eman daiteke Gizarte Zerbitzuetara deituta (943 377 110) edota gizarte-zerbitzuak@usurbil.net idatziz.

Autobus zerbitzua hobetzeko ekimena

Foru Aldundiak, Aztikerrekin batera, autobus zerbitzua hobetzeko parte hartze prozesua abiatu du. Prozesu horren baitan, saio bat antolatu dute, urriaren 9an, 18:00etan Potxoenean. Herritarren proposamenak jaso nahi dituzte bertan. Antzeko saioak egingo dituzte Buruntzaldeko gaineko udalerrietan. Gerora baita Gipuzkoako beste bailaratan ere.

Haginak ondo dabilzanean, sabela poz!

USURBILGO HORTZ KLINIKA

FERNANDO PEREZ-MOSSO NENNINGER
ANTONIO BERNAL RUIZ DE OÑA

Kale Nagusia 10, 1.C4
Tlf 943 37 08 78

20170
USURBIL

txirriStra

TABERNA

-Plater konbinatuak
-Ogitartekoak
-Pintxoak

Kontseju zaharra, 13 Tel 943 36 04 66



Ofizioen Gida



URDAINTZI
eraikuntzak

649 43 54 75 / 76
943 36 72 64
urdaintzi@euskalnet.net

· ERAIKUNTZAK · OBRAK
· BERRITZE LANAK

Andoni Errazkin

Xukin
igeltseritza orokorra

663 08 76 71
943 24 34 65

Barne eta kanpoko lanak

Jose Aizpurua
Unanue eraikuntzak S.L
teillatuak eta fatxadak

943 37 38 79
620 80 01 86

Kale Nagusia 14, Behea (atzekaldean), LASARTE-ORIA

Josue
Igeltseritza

Fax: 943 24 34 60
Atellu pol. atellu. 28
20170 - USURBIL

606 37 21 05

Igeltseritza orokorra

Errazkin S.L.
igeltseritza orokorra

943 240 176 eta 649 435 470

Oztaran auzoa 33, URNIETA



ANORGA TXIKI S.L
KRISTALDEGIA

- komertzial instalazioak
- beira bikoitza · segurtasun beirak
- dutxa-itxiturak eta irristailuak

943 37 17 33- 610 45 93 45

Oria Etorbidea 4, LASARTE-ORIA



Enrique Alonso
ITURGINTZA
GASA-BEROKUNTZA

Oro har libratze-lanak
TB kamerakin hodi eta tximinien azterketa
BAIMENDUTAKO INSTALATZAILEA

659 675 283

LATAILLADE
ITURGINTZA

Gasa, berogintza,
klimatizazioa, instalazioak
eta mantenimendua

943 363 348 - 609 888 021

Javier Orbegozo
GASA-BEROKUNTZA

659 602 789

erreka txiki 13, 3.esk

JOSEBA
ARANGUREN
ITURGINTZA

943 83 00 72
659 88 39 12

Bainu eta sukalde
erreformak, gasa,
berokuntza

Jose txo Ikatzeta

687 951 225



**ESKAIOLA
PLADUR**

Joxean Elorza -USURBIL

699426042



**Antonio
URRUZOLA**
AROTEGIA

Tel/Fax: 943 376 415

Asteasuain Industrialdea, 3

BARRENETXE
Salsamendi Arregi, Imanol
AROTEGIA

943 362 664

Barren Elxe kalea ZUBIETA



izagirrelektrizitatea@hotmail.com

izAgirre
Elektrizitatea

Apdo. 37
943 36 50 95
609 06 81 11
943 37 65 87

Golz Argi etxea n° 37
Kale Zahar Auzoa

ARGILAN
INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

629 272 859
943 361 380

BORDA-BERRI 5, baxua USURBIL

2€

TIPI-TAPA

USURBIL

**Pintxo berezia
+ edaria 2€**

Urteko ardoa, txakolina
sagardoa, zurtoa edo ura

**Hileko lehen
igandean**

15:00ak arte

**150 €ko erosketa-balea
zozkatuko da hiler**

Tipi-Tapa ibilbidea osatzen
dutenen artean



ARTZABAL



XARMA



BORDATXO



TXIRRISTRA




AITZAGA



TXAPELDUN



TXIRIBOGA



Eskuratu zure
Tipi-Tapa txartela
eta hasi
zigiluak biltzen!

**MOKADUEN
OSAGAI NAGUSIA:**

PERRETXIKOAK

Noiz: **urriak 6**

Erosketa balearen zozketa:
15:00etan Txiribogan

